

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2013ko apirilaren 18a. IX. urtea. 2.579. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Alegiatik Amezketarako Ñañarri Rallyesprinta 75 gidarik egingo dute

Irurako Ikastolak eta Sardara taldeak antolatu dute lasterketa seigarren urtez; larunbatean, 15:00etan emango zaio hasiera Alegian 10,3 kilometroko ibilbideari

Urteko probarik «politena» dela diote gidari askok; komisarioen aginduak errespetatzeko eta norberak bere hondakinak biltzeko eskatu dute antolatzaileek **o5**

2013ko Naturaldiak uraren inguruko hausnarketa bultzatu nahi du

'Bizirik al daude gure ibaiak?' lelopean gaur hasiko dira jardunaldiak; 19:30ean, 'Urak, ibaiak eta herriak' erakusketa zabalduko dute **o2**



Martin, Errazkin eta Iriarte Donostian egindako agerraldian, atzo. I URKIZU

Gurea aretoak bizirik irauteko herritarren parte hartzea behar du

Amasa-Villabonako Udalak zinema aretoak garai zailak bizi dituela jakinarazi du; bonoak jarri dituzte salgai, eta herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte **o6**

Maxurrenea Herrintzat plataforma parlamentura joango da

Maxurrenea herriarena dela aldarrikatzen hamar urte daramatzate leitzarrek; Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dute eskaria, hilaren 24ean **o6**



ASERIMAZ

→ **Langileek Alemaniarako bidea hartu dute.** Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako langileen ordezkaritza zabal bat Alemaniara joan da, multinazionalak Europan duen egoitza nagusira, beraien ahotsa entzun dezaten. Hiru hilabete daramatzate greban, eta euren lanpostuak eta eskubideak defendatu nahi dituzte. **o3**

↓ Naturaldia 2013**APIRILAK 18, OSTEGUNA**

■ **19:30.** Pedro Arrojoaren zuzendaritzapean osatutako *Ura, ibaiak eta herriak* erakusketaren inaugurazioa izango da, Aranburu jauregian.

APIRILAK 19, OSTIRALA

■ **19:30.** *Uraren pribatizazioa, austeritatea ala negozioa?* izeneko hitzaldia izango da, gaztelaraz, Topic zentroko aretoan, Pedro Arrojoaren eskutik.

APIRILAK 22, ASTELEHENA

■ **19:30.** *Ibaiak eta aldaketa globala* hitzaldia izango da, euskaraz, Arturo Elosegi biologia katedradun eta irakasle tolosarraren eskutik, Topic zentroko aretoan. (Maiatzaren 9an hitzaldi bera gaztelaraz eskainiko du hizlariak, Errenterian).

APIRILAK 23, ASTEARTEA

■ **19:30.** Mahai inguru Topic zentroko aretoan: *Ibai biziak izateko erronkak*. Oria *ibaiaren artoa*. Iñaki Antiguedad, Patxi Tames, Jose Maria Sanz de Galdano eta Hasier De los Rios izango dira hizlariak.

APIRILAK 24, ASTEAZKENA

■ **19:30.** *Uraren xarma* hitzaldia izango da, gaztelaraz, Jordi Sargatalen eskutik, Topic zentroko aretoan.

APIRILAK 25, OSTEGUNA

■ **19:30.** *Ibai bizidunak* hitzaldia izango da, gaztelaraz, Pedro Brufaoren eskutik, Topic zentroko aretoan.

MAIATZAK 6, OSTEGUNA

■ **19:30.** *Ura, baliabide balioetsu eta mugatua* hitzaldia eskainiko du, gaztelaraz, Miguel Delibes de Castrok, Donostiako Aquariumean. Biologiaren esparruan aditua da bera, eta aurtengo Naturaldikojarduerarik nabarmenetakoa izango da honako hau.



Shole Martinek, Iñaki Errazkinek eta Ibai Iriartek aurkeztu dituzte aurten, Naturaldia jardunaldiak. I. LURKIZU

Uraren kultura berri bat garatzeko, hausnarketa bultzatuko du Naturaldiak

Gaur hasiko dira jardunaldiak, Aranburu jauregian 'Urak, ibaiak eta herriak' erakusketa 19:30ean irekiz

Itzea Urkizu

Hausnarketarako deia egiteko helburuz, eta uraren kultura berri bat garatze bidean, *Bizirik al daude gure ibaiak?* lelopean hasiko da, gaur, 2013ko Naturaldia. Atzo aurkeztu zituzten, Gipuzkoako Foru Aldundian, naturaren inguruan 24. aldiz ospatuko dituzten jardunaldiak; Shole Martin antolatzailea, Ibai Iriarte Tolosa alkatea eta Iñaki Errazkin Ingurumen eta Lurralde antolantzaileak diputatuak izan ziren agerraldian.

Urteroko moduan, hitzaldiek eramango dute egitarauko hari nagusia, baina horrez gain, erakusketa eta mahai inguru ere izango dira, ibaien eta beren biodibertsitatearen inguruan hausnartzeko.

Iñaki Errazkinek, Gipuzkoan ibai asko daudela nabarmendu du: «Bizitza sozio-ekonomikoa ibaien inguruan antolatu izan da Gipuzkoan, eta duela gutxira arte, oso kutsatuta egon izan dira; zabortege gisa erabili izan ditugu, biodibertsitate handiena duten espazioak». Horrela beraz, diputatuak «kontzientzia eta konpromisoarekin» erantzun behar dela uste du.

Ibai Iriartek, bere aldetik, «Tolosa-urak eta Oriaren bailararako ura oso gai egokia» dela uste du: «Tolosak eta Tolosaldeak Oria

Naturaldia jardunaldiak 24. aldiz antolatu dituzte Gestonaturako kideek

ibaiaren inguruan garatu dute beren bizitza, eta horren adibide da, esaterako, paper fabrikek Tolosan izan zuten gorakada». Lantegi hauek Oria ibaiaren kutsadura ekarri zutela gogora ekarri du: «Eta orain gauzak hobeto dauden arren, baliabide mugatuak dira ibaiak, eta kudeaketa integrala beharrezkoa da».

Bizirik al daude gure ibaiak? leloa aukeratu dute aurten, Gestonaturako antolatzaileek. Oria

ibaiari, gainera, arreta berezia eskainiko diote mahai inguruaren bidez: «Jardunaldiak tolosarrei gerturatu nahi izaten dizkiegu beti, eta gainera, herritarrek jakin egin behar dute ibaiak, nahiko polita dagoen arren, kutsatuta egoten jarraitzen duela. Jorritu beharreko gaia da, beraz», nabarmendu du Shole Martin antolantzaileak.

Ibaiak eta beren bizitza

«Aurten ere, eztabaida eta kontzientziazio ekologikoaren erdigunean kokatuko da Tolosa», antolatzaileen arabera, eta bide horri eutsiz, uraren kultura berri bat garatzearen beharra helarazi nahiko diete herritarrei: «Ondasun natural mugatu honekin haurren erabileraren erabileraren kontserbatzea eta hobetu egin behar dira».

Batetik, maiatzaren 11ra bitarteko ikusgai izango den *Urak, ibaiak eta herriak* erakusketaren bidez sustatu nahiko dute hausnarketa; aipatzekoa da, gaur bertan inauguratuko dutela erakusketa, Aranburu jauregian.

Nazioarteko zortzi argazkilarien 185 lan ikusi ahal izango dira, eta guztiak uraren kudeaketan arazoak sortu izan dituzten kasuen inguruko erretratuak izan-

go dira; gatazka hauen aurpegi humanoa islatuko du erakusketak, testigantzekin argazkiak osatuz.

Pedro Arrojo da erakusketako zuzendaria, eta hain zuzen, Arrojok berak eskainiko du, bihar bertan, 19:30ean lehen hitzaldia, *Uraren pribatizazioa, austeritatea ala negozioa?* izenburupean; Topic zentroan izango da. Nazioartean aditu da ingurumen gaietan, eta saio honetan, uraren kudeaketa publikoaren alde egingo du, ura giza eskubide den aldetik.

Bigarren hitzaldia, berriz, astelehenean izango da, ordu eta leku berean, Arturo Elosegi tolosarraren eskutik. *Ibaiak eta aldaketa globala* izenburua jarri dio saioari, eta besteak beste, ibaiak kontserbatzeko dagoen beharraz ohartarazi nahiko ditu bertartuak.

Asteartea, hilak 23, mahai inguruaren txanda izango da; Iñaki Antiguedad, Patxi Tames, Iñaki Arrate eta Hasier De los Rios ingurumen adituak, *Ibai biziak izateko erronkak*. Oria *ibaiaren artoa* gaiaz ariko dira.

Asteazkenean, berriz, Jordi Sargatal naturalista helduko da Naturaldira, *Uraren xarma* hitzaldiarekin.

Tolosan azken hitzaldiaz gozatzeko aukera osteguna izango da, eta *Ibai biziak* hitzaldia eskainiko du, Pedro Brufaok; gizarateak ibaiaren duen ikuskeraz ariko da, besteak beste.

Azkenik, 2013ko Naturaldia, Donostiako Aquariumean amaituko da beste behin ere. Miguel Delibes de Castro biologo eskarmentudunak *Ura, baliabide balioetsu eta mugatua* saioa eskainiko du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

↓ Iragarki laburrak**LAN ESKAINTZA**

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da, ostiral eta larunbatetan, eta oporretako ordezkapenetan, barra nahiz jatetxean lan egiteko. Bidali curriculumak, Correoseko 20. posta kutxara.

LAN BILA

Autobus gidaria. Edozein lanetarako, autobusa gidatzeko bai mena duen gizonak bere burua eskaintzen du. Esperientzia du eremu honetan. Interesa dutenek, deitu 677 88 42 78ra.



Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako langileak atzo Tolosako Trianguloa plazan, Alemaniarako bidaia hasi aurretik. A. IMAZ

Huyck Wangner-eko langileen ahotsa Alemanian entzungo da

Zizurkilgo lantegiko ordezkaritza bat multinazionalaren egoitza nagusira joango da, bi mezu zabaltzeko asmoz

Asier Imaz

Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako langileek euren lanpostuak eta eskubideak defendatzeko borroka Alemaniara eramango dute. Lantegiko hemeretzi langile eta ELA sindikatuko hiru ordezkarik atzo eguerdian abiatu ziren Tolosako Trianguloa plaza-tik Alemaniara, autobusez.

Huyck Wangner-eko ordezkaritza horrek euren lankide, lagun eta senideen babesa jaso zuen Trianguloan. Hainbat komunikabide ere bertaratu ziren, Alemaniako egonaldien nondik norakoak jakitera. Zizurkilgo enpresako langileek txalo eta elkartasun oihuen artean ekin zioten bideari.

Aldarrikapen bidaia lau egune-

koa izango da, eta Huyck Wangner enpresak Europan duen zuzendaritzaren egoitzara joango dira. Itzulera, larunbatean izatea aurreikusten dute. «Multinazional baten aurka borrokatzen ari garela kontuan hartuz, guk ere gure borroka Euskal Herriko mugetatik haratago eramatea erabaki dugun», azaldu zuten langileek. Europan lau lantegi dauzka Huyck Wangner-ek, eta Alemaniako da horietatik nagusiena, hain zuzen ere, Europako zuzendaritza bertan dago.

Bi mezu zabaldu nahi dituzte multinazionalak Europan duen

egoitza nagusian. Bata, langileei zuzenduko diete, eta bestea, zuzendaritzari.

Multinazionalak dituen lantegietako beste langileei elkartasuna azaldu nahi diete Zizurkilgo langileek: «Ez guri laguntza emateko bakarrik, baizik eta denon artean batu, koordinatu eta informatu daitezten, etorkizunean gure egoera berdinean aurki ez daitezten». Bestalde, zuzendaritzari ondorengoa esan nahi diote: «Inoiz baino indartsuago eta elkartuago gaudela, eta borrokan jarraituko dugula azken aukera agortu arte».

Mikel Zabaleta ELA sindikatuen ordezkarik langileekin batera joan da Alemaniara. Bere esanetan, ELA sindikatua IG Metall sindikatuarekin harremanetan egon da, eta babes handia jasotzeaz gain, Alemanian burutuko dituzten ekimenak antolatzen lagundu diete eskualdeko langileei. IG Metall sindikatua Europako metalgintzako sindikatirik handiena dela argitu du Mikel Zabaletak, eta eskaintako laguntza osoagatik, «alde zuzenetik, gure eskerrik beroena haien zabal».

2012an, irabaziak

Laster hiru hilabete beteko dira Huyck Wangner-eko langileek greba mugagabea hasi zutela. Denbora horretan, hainbat eta hainbat ekimen aurrera eramanez dituzte langileek, euren lanpostuen defentsan.

Datorren astean, bigarren enplegurako erregulazio dosieraren kontsulta epea amaituko da, hilaren 25ean, hain zuzen. Langileen esanetan, «enpresaren zuzendaritzak hasierako jarrera berdinarekin jarraitzen du. Ez dute Zizurkilgo lantegia irekita mantendu nahi».

Mikel Zabaleta ELAren ordezkarik atzo azaldu zuenaren arabera, 2012ko kontuak onartu berriak dira, eta enpresak irabaziak eman ditu, 96.000 eurokoak, hain zuzen ere. «Gainera, jakin ahal izan dugunaren arabera, azken lau urteetan 5,7 milioi euro baino gehiago atera dituzte Zizurkilgo lantegitik multinazionalera maileru desberdinen bidez, nahiz eta horietatik 4,3 milioi euro ondoren barkatu egin dizkioten enpresa taldeari, hau da, opartu egin dizkiotela».

Zenbaki hauek eskuetan, Mikel Zabaletak lotsarik gabe jokatzea leporatu dio zuzendaritzari: «Zizurkilgo lantegiak ez duela etorkizunik esaten dute, inbertsiorako diru nahikorik ez dutela. Ez dago eskubiderik! Ez dute inongo lotsarik».

TAK-eko jubenilek Gipuzkoako bandera irabazi dute

Pasai San Pedron jokatu dira Gipuzkoako Batel Txapelketak; eskualdekoek bost domina lortu dituzte

A. Imaz

Batel denboraldia amaierara iristen ari da. Iragan asteburuan Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Pasai San Pedron, eta Tolosaldeko Arraun Klubeko arraunlariek emaitza bikainak eskuratu zituzten. Asteburua borobiltzeko, gainera, jubenil mutilek bandera ekarri zuten eskualdera. Azken

sailkapenak ikusita, guztira bost domina eta bandera bat lortu zituzten TAK-eko arraunlariek: Urrezko bat; hiru zilarrezko eta brontzeko bat. Seniorren kasuan, Federakuntza Kopako azpitxaldun gelditu ziren.

Gipuzkoako Txapelketa bi egunetan ospatu zen. Larunbatean sailkapen estropadak jokatu ziren, eta igandean, ohorezko txandak.

Batel denboraldiari agur esateko, asteburu honetan Euskadiko Txapelketak jokatu dira. Legutioko uretan Tolosaldeko Arraun Klubeko batel guztiak egongo dira, Gipuzkoan lortutako emaitzak errepikatzeko gogoz.

↓ Emaitzak

GIPUZKOAKO BATEL TXAPELKETA

- **Infantil-kadeteak (neskak)**. Brontzeko domina.
- **Infantilak (mutilak)**. Zilarrezko domina.
- **Kadeteak (mutilak)**. Zilarrezko domina.
- **Jubenilak (neskak)**. Zilarrezko domina.
- **Jubenilak (mutilak)**. Bandera eta urrezko domina.
- **Seniorrak (mutilak)**. Federakuntza Kopako azpitxapeldunak.



TAK-eko jubenil mutilak Gipuzkoako Txapelketa ospatzen. HITZA

Argazki zaharrak biltzen ari dira Santio Jaien inguruko erakusketa egiteko

1980 aurreko argazki eta bideoak, eta 1967 baino lehenagoko jai egitarau edota kartelak eskatu ditu udalak

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Santio Jaien historia biltzen duen argazki erakusketa antolatuta du Amasa-Villabonako Udalak ekainaren bigarren hamabostaldira. Erakusketa horretarako, material bilketa egiten ari da orain udala, eta herritarren laguntza eskatu du.

Hasiera batean, jaietako egitarau zaharrei buruzko erakusketa bat egitea zen asmoa, baina udalaren artxiboa arakatzen hasi eta erakusteko moduko material asko zegoela konturatu ziren.

Esate baterako, Villabonako Udal Artxibategian, Santio Jaien inguruan aurkitu zuten lehen berria 1622koa da. Ondoren, XIX. mendera arte ez dago gauza gehiegi. Handik aurrera, eta batez ere, XX. mendean, datu gehiago daude.

Kultura sailak, orain, herritarren eskura jarri nahi du ondare hori, ohiturak ezagutu eta jaiari buruz gehiago jakiteko helburuarekin. Ondare hori ahal bezain



Santio Jaietako argazki zahar bat. HITZA

handia eta aberasgarria izan dadin, herritarrei material zaharra biltzen laguntzeko eskatu diete.

Modu horretan, 1980 aurreko argazki edo bideoak, edota 1967 baino lehenagoko jai egitarauak eskatu dituzte, baita interesgarriak izan daitezkeen beste elementuak, hala nola, jantziak, kartelak, gutunak, eta abar.

Material hau, udaletxeko lehen solairuan dagoen Kultura saileko

bulegoetan utzi beharko da apirilko astelehenetan, 09:00etatik 14:00etara. Dena delako material horren kopia bat egin, eta jabeari itzuli egingo zaio momentuan, baldin eta kopiagarria den.

Argibide gehiago emateko, *kultura@villabona.net* helbidera idatzi edota 943691655 telefono zenbakira deitu daiteke.

Erakusketa hori, ekainaren bigarren hamabostaldian egingo

da Gurea antzokiko erakusketa aretoan, ekainaren 17tik 29ra, hain zuzen.

Musika tresnen erakusketa

Bestalde, zabalik da leku berean, Euskal Herriko herri musikako tresna tradizionalen erakusketa. Erakusketaren ordutegia, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:30etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara da.

Bihar, 'Ez gara Palestinaz ari' antzezlanaren ikusteko aukera Larraulen

Asteasun, berriz, musika asteburua antolatuta du EBIA kultur taldeak, eta hiru emanaldi izango dira

M. Iraola Larraul

Bihar, arratsaldeko zortzietatik aurrera, *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizun arrakastatsuz gozatzeko aukera izango da Larraulgo elizan. Imanol Kamio, Ander Lizarralde, Unai Muñoa eta Aitor Atxegak osatutako laukotearen emanaldiak, antzerkia, bertsoak, pianoa, gitarra, akordeoia eta poesia uzartzeko dituzte, eta kritika onak jasotzen ari da.

Musika asteburua Asteasun

Asteasun, musika asteburua antolatuta du EBIA kultur taldeak. Bihar, gaubela keltiarra izango da Iturriondoko jatetxean, Limerick taldearen kontzertuarekin. Larunbatean, arkupetako erromeria izango da Tapia eta herriko trikitilarekin, arratsaldeko seieta. Erakusketaren ordutegia, astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:30etara, eta larunbatetan 10:00etatik 13:00etara da. Aurretik, kalean zehar ibiliko da.

Aizkardik Joargo tontorrera irteera antolatuta du

Kodes bailaran zehar egingo duten mendi irteerara joan nahi duenak, gaur eman behar du izena

A. Imaz Amasa-Villabona

Aizkardi Mendi Elkarteak irteera ederra antolatuta du igande honetarako. Lizarra eta Viana arteko Kodes mendi lerrora joango dira.

Sei ordu t'erdiko eta 20 kilometroko itzulian, besteak beste, 1.419 metro dituen Joar mendiaren tontorra igoko dute. Ibilbidea Kodesko santutegian hasiko dute, eta Acedo herrian amaitu.

Izen ematea, gaur

Aizkardiren mendi irteerara joan nahi duen edonork, horretarako aukera izango du, beti ere, izena gaur ematen baldin badu, epea hain justu gaur amaitzen baita. Irteerara joateko 649 71 71 82 tele-

fono zenbakira deitu behar da, 20:00etatik 22:00etarako tartean. Beste aukera bat, ordutegi horretan Aizkardi Mendi Taldearen egoitzara agertzea izango litzateke.

Igandean mendizaleak goizean goiz abiatuko dira Villabonako Olaederra kiroldegian aurretik. Hitzordua 07:00etan jarri dute, eta esan beharrik ez dago, egun guztiko irteera izango dela. Aizkarditik herritarrek animatu dituzte izena ematera.



Kodes bailarako Joar mendia igoko dute igandean, Aizkardiokoek. HITZA



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

VI. ÑAÑARRI RALLYESPINTA

Apirilak 20 • Larunbata
Irteera: 15:00etan Alegiatik Amezketara

Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira



sarrerak



Larunbat honetan seigarren urtez jokatu den Ñañarri Rallyesprinta, urteko probarik «politena» dela diote gidari askok. Lasterketa honen atzekaldean dagoen lana nolakoa den azaldu du Iñigo Iñurrita koordinatzaileak.

Autoak eta ogitartekoa, plan aparta

Mikel Iraola Irura

Ñañarri Rallyesprintaren seigarren edizioa jokatzeko egun gutxi-
ren faltan, nabari dira jada motor hotsa eta neumatiko usaina Alegia eta Amezketan batzen dituen GI-2133 errepidean.

Eskualdeko motorzaleek galdu ezin duten hitzordua izango dute larunbatean. Ia dena prest da gidari askok, «urteko probarik politenetako bat» bezala definitzen duten lasterketa jokatzeko.

Hiru hilabetez ibili dira lanean Irurako Ikastolako eta Sardara taldeko antolatzaileak. «Sei urte hauetan rallyesprintaren ezaugarriak eta ia lantalde bera mantendu direnez, geroz eta azkarrago egiten ditugu egin beharrekoak», dio Iñigo Iñurrita, antolakuntzako koordinatzaileak.

Urrian ekin zioten lanari. Lehen pausoa, eta garrantzitsua, inguruko udalei baimenak eskatzea izan zen. «Behin baimen hoiek lortuta, aldundiak ez du inongo arazorik jartzen». Ondoren, data aukeratu behar izan zuten. «Abenduaren 31 baino lehen egin behar izaten dugu hau, izan ere, urtarrilean Ertzaintzako Trafiko Saila hainbat federazioekin biltzen da, kirol proba ezberdinek elkarren artean oztoporik egiten ote dieten aztertzeko».

Behin hori finkatuta, hurrengo egitekoa, iragarleak bilatzea da. Inauteriak pasa ondoren hasten dira horretan. «Publizitatea beharrezkoa daukagu proba antolatu ahal izateko. Rallyesprinta antolatzaiek 18.000 eta 20.000 euroko kostua du, eta diru horren zatirik handiena iragarkietatik sartzen da. Bestea, izen emateekin eta ikusleek ordaindu beharreko sarrekin lortzen dugu. Orain arte beti ondo ibili izan gara», azaldu du Iñurritak.

Behin hori guztia lotu ondoren, pertsonala antolatzeari ekiten diote. «Lan talde ezberdinetan banatuta gaude: trafiko eta aparkalekuak, garbiketa, protokoloa, iragarkiak, komunikazioa, komisarioak, giza baliabideak, segurtasuna... Bakoitzak bere esparrua kontrolatzen du». Lan horietan, hogeitabat pertsona aritzen dira. Egunean, berriz, ia 180 dira.

Eguraldiari begira

Hilabete horietan egindako lana, ordea, egun bakarrean ikusten da eta akats batek edo eguraldiak berak, dena zapuztu lezake. «Orain arte beti ongi moldatu izan gara. Probak amaitu eta balorazio guztiz positiboak egin ditugu», dio



Atzo aurkeztu zuten VI. Ñañarri Rallyesprinta Irurako Ikastolako jolastokian. MIKEL IRAOLA

antolakuntzako koordinatzaileak. Horregatik, bereziki aste honetan, zeruari begira dabilta. «Eguraldiaren arabera, jende gehiago edo gutxiago hurbiltzen da, eta beraz, horren arabera da ere diru sarrera. Pasa den urtean, adibidez, eguraldi kaskarra egin zigun, eta inoiz baino jende gutxiago izan genuen ikusten».

Iragarpenak onak dira aurtten, eta joan den urtean baino jende

Hiru hilabete ematen dituzte prestaketa lanetan eta 20 pertsona ibiltzen dira

Komisarioen aginduak errespetatu eta hondakinak biltzea eskatu dute

gehiago espero dute Alegia eta Amezketan bitarko errepide bazez. «Lagunartean edo familiar, ogitartekoa eta edari batzuk hartu eta egun on bat pasatzeko plan aparta» dela dio Iñurritak.

Hori bai, atzo Irurako Ikastolan egin zen aurkezpenean, bi mezu zabaldu nahi izan zituzten bertaraten diren horientzat: «Alde batetik, komisarioei errespetatzeko eskatu behar diegu ikusleei. Haiek lekuren batean ez egoteko esaten badiete, aginduak bete dituztela, ezbeharrak ekiditeko. Bestetik, hondakinak biltzea es-



Ander Learreta joan den urteko proban. ASIER IMAZ

kertuko genieke. Ezer gertatu izan ez balitz bezala utzi nahiko genuke, eta euren laguntzarekin garbiketa lanak asko erraztuko dizkigute».

Probarik «politena»

Probari edertasuna, baina, ez dio eguraldiak emango, gidarien lanak baizik. Eurak izango dira larunbat honetan protagonistak.

Guztira 75 gidarik eman dute izena, aurtengo denboraldiko rallyesprint guztietan egon den kopururik altuena. Parte hartzaileen artean, faborito izan daitezkeen Ander Arana, joan den urteko garailea, Joxe Labaka, Txus

Jaio, Iñaki Alberdi, Aingeru Castro edo Josetxo Zapiain bezalako gidariak daude.

Eskualdeko lau gidarik ere hartuko dute parte: Joseba Sanz, Markos Landa, Iker Tolosa eta Andoni Aierbe.

Azkenhonek, ibilbidearen inguruko xehetasun teknikoak azaldu zituen: «Hasiera oso teknikoa da, eta Orendain eta Abaltzisketa bitarteko tarte oso azkarra da. Orokorrean, oso proba polita da pilotontzat. Askoren ustez urteko politena. Parte hartzaile kopuruan ikus daiteke hori. Ni, pertsonalki, oso gustura ibiltzen naiz».

Larunbatean, arratsaldeko hi-

↓ Datuak

ÑAÑARRI RALLYESPRINTA

- **Edizioa.** Seigarrena.
- **Eguna.** Apirilak 20, larunbata.
- **Hasiera ordua.** 15:00etan.
- **Errepide itxiera.** 14:00etan.
- **Amaiera ordua.** 20:00etan.
- **Ibilbidea.** Alegia-Amezketak.
- **Distantzia.** 10,3 kilometro.
- **Distantzia osoa.** 31,5 km.
- **Piloto kopurua.** 75.
- **Eskualdeko pilotok.** Andoni Aierbe, Markos Landa, Joseba Sanz eta Iker Tolosa.
- **Atoi parkea.** Alegiako Bazurka Industrialdean.
- **Aparkalekuak.** Alegiako Bazurka Industrialdea, Orendain eta Larraitz
- **Sari Banaketa.** 20:00etan, Bazurka Industrialdean.

rurretan hasiko da rallyesprinta. Gidariak baina, goizeko bederatzietarako egon beharko dute Alegiako Bazurka Industrialdeko atoi parkean, egin beharreko azterketak egiteko.

14:00etan, berriz, errepideak itxiko dira eta ez dira proba amaitu arte irekiko, beraz, antolatzaileek garaiz iristea eskatu dute. Hiru aparkaleku izango dira: Alegiako industrialdea, Orendain, eta Larraitz. Probari amaiera emango dion sari banaketa, berriz, 20:00etan izango da Alegian.



Urteak daramatzate leitzarrek aldarrikapen berarekin. Horren adibide, 2009ko manifestazio hau. ESTI EZEIZA

Maxurrenea Herrintzat-eko kideak Nafarroako Parlamentura joango dira

Leitzako plazan elkarretaratzea egingo dute apirilaren 22an, astelehenean, 20:00etan hasita

Asier Imaz Leizta

Hamar urte daramatzate leitzarrek Maxurrenea herriarena dela aldarrikatzen. Hamar urte eta gero, aldarria betetzeko ordua dela diote. Maxurrenea Herrintzat Plataformako kideek euren eskaria Nafarroako Parlamentura eramango dute asteazkenean, hilaren 24an, eta bertako lan saio batean azalduko dituzte aldarria-

ren arrazoiak, «etxea herriaren beharrak asetzeko erabili behar dela, alegia».

Hitzordu horren aurretik, beste hainbat lanketa eta ekimen antolatu dituzte plataformatik. Alde batetik, hilaren 22an, astelehenean, Nafarroako Parlamentuko talde guztiekin elkartuko dira, PPNrekin izan ezik. Iluntzean, «herritarren nahia kalera ateratzeko helburuarekin», elkarretaratzea egingo dute Leitzako plazan. Mobilizazioa 20:00etan hasiko da, eta bertan erabiliko duten leloa ondorengoa izango da: *Maxurrenea herrintzat, 10 urte eta gero, ordua da!*

Ekimen guzti hauen inguruko informazioa eta balorazioak

http://maxurreneherrintzat.blogspot.com.es/web/orrian/zintzilikatuko_dute_herri_plataformako_kideek.

Sinadura bilketa

Elkarretaratze eta batzarrekin batera, sinadura bilketak aurrera jarraitzen duela azaldu dute herri plataformatik, erritmo onean, gainera. Hala eta guztiz ere, oraindik sinatu ez duten herritarrek sinatzera gonbidatu dituzte.

Horretarako zerrendak hainbat lekutan jarri dituzte: Torre herrikoa, Gaztañaga, Landaberri, Peritza, Txoko, Musunzar, Adur, Leitzarza, Beatrizenea, Zortziko, Ogiberri eta Zirkulo tabernetan; udaletxean, Sarrion, liburutegian eta gaztetxean, eta Mai-mur eta Astiz liburudendetan.

↓ Hitzorduak

APIRILAK 22, ASTELEHENA

■ **Egunean zehar.** Maxurrenea Herrintzat Plataformako kideak Nafarroako Parlamentuan dauden taldeekin elkartuko dira: EH Bildu, Geroa Bai, UPN, PSN, eta Izquierda-Ezkerrarekin. PPNrekin ez dute hitzordua zehazterik lortu.

■ **20:00etan.** Leitzako plazan elkarretaratzea egingo dute, *Maxurrenea herrintzat, 10 urte eta gero, ordua da!* lelopean.

APIRILAK 24, ASTEAZKENA

■ **Arratsaldean.** Maxurrenea Herrintzat Plataformako kideek Nafarroako Parlamentuko lan saio batean parte hartuko dute. Ondoren, asteko balorazioa egingo dute, eta besteak beste, http://maxurreneherrintzat.blogspot.com.es/web/orrian/zabalduko_dute_balorazio_hori.

Gurea aretoa parte hartzearekin atera nahi dute aurrera

Ekarpenak egin nahi dituztenek 'kultura@villabona.net' helbide elektronikora idatz dezakete

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udaletik azaldu dutenez garai zailak bizi ditu Gurea zinema aretoak. Etor-kizuna izan dezan, hainbat ekimen antolatu dituzte, eta horietako bat, herritarren parte hartzeari dagokiona da: «Ahalegintzen ari gara film programazioa hobetzen. Ahalegintzen ari gara kalitatezko emanaldiak ematen, estreatu eta denbora gutxira. Era berean, ikusleen parte hartzea handitzen ari gara. Horregatik, ongietorriak izango dira zuen galderak, iradokizunak eta ekarpenak».

Parte hartzeko, herritarren eskura helbide elektronikoko bat jarri dute udaletik: kultura@villabona.net. Ekarpenak egiteko aukera horrekin batera, Gurea aretora joateko bonoak jarri ditu udalak. Ikusleek 15 euroko bonoak erosten baldin badituzte, ordainetan bost sarrera jasoko dituzte. Bono bakoitza pertsona batek baino

gehiagok erabil dezaketela azaldu dute udaletik, baita film emanaldi berean ere. Modu honetara, Gurea aretora bonoarekin joaten denak, emanaldia 3 euroren truke ikusteko aukera izango du. Orain salgai dauden bonoek apirilaren 30era bitarteko iraupena dutela azaldu dute udaletik.

«Ez dugu etsiko»

Udal zinema areto gehienak, krisiaren eraginez, garai zailak bizi-tzen ari dira. Sektoreak bizi duen krisia ez da nolana hikoia, Amasa-Villabonako Udaletik azaldu dutenez. Hala eta guztiz ere, ez daude etsitzeko prest, eta «Gurea aretoa irauarazteko apustu garbia» egingo duela azaldu du udalak. Bide horretan, enpresa kudeatzaile berri baten aldeko apustua egin dute, udalaren esku hartzea areagotuaz: «Helburua kalitatezko programazio baten alde egitea da; ikusle kopuru aldetik minimo batzuk betetzen dituen, irizpide ekonomista hutsen menpe egon gabe».

Gurea aretoa bezalako kultur baliabide bat estimatu beharra dagoela diote udaletik, eta duen balioa apreziatu beharra dagoela gaineratu dute. Horregatik, ikusleei bertara gerturatzea eskatu diete.

Astebeteko udaleku itxiak antolatu dituzte Aralar inguruetan

Txindokiko Itzala eta Aralar Kirolak dendaren artean antolatu dute ekimena; bi txanda proposatu dituzte

A. Imaz

Larraitz eta Abaltzisketa artean, Txindokiko Itzala Udalekuak antolatu dituzte uztailaren. Ekimena, Aralar Kirolak dendak eta Txindokiko Itzalak osatu dute, eta astebeteko udaleku itxiak izango direla azaldu dute. Bi txanda egongo dira: uztailaren 15etik 21era bitartean 2002an, 2003an eta 2004an jaiotako haurrentzat, eta 23tik 29ra, 2000 eta 2001ean jaiotakoentzat. Prezioa 225 eurokoa da, eta izena emateko epea ekainaren 21ean amaituko da. Apuntatzeko hiru aukera zabaldu dituzte:

info@txindokikoitzala.com helbide elektronikoa; 628 94 72 53 edo 943 65 47 57 telefono zenbakietako batera deituta, edo Tolosako Aralar Kirolak dendan.

Pertsona kopurua mugaturik dagoela azaldu dute, ondorioz, izen ematea ahalik eta azkarren egitea gomendatu dute.

Abentura, nahi adina

Udaleku itxi hauen ezaugarri nagusia abentura dela azaldu dute ekimenaren sustatzaileek. Eskalada, zuhaitz parkea, mendi ibilaldiak, piraguismoa, gau pasa Aralarren... Bi enpresa hauen helburu nagusietako bat, «gazteak naturan erabat murgilduta» aste bat pasatzea dela azaldu dute. Bizi filosofia eta espiritu aktibo bat sortzeko helburuarekin haur eta gaztetxo guztiak gonbidatu dituzte Txindokiko Itzala Udalekuetara.

BERRIA egunkarian udan KAZETARITZA PRAKTIKAK egiteko deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

GIPUZKOAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: Andoingo Martin Ugalde kultur parkea.
ORDUA: 16:00etan

BIZKAIAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: EHUko Leioako Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko 30. gelan
ORDUA: 12:00etan

ARABAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: BERRIaren Gasteizko egoitzan (Bizenta Mogel, 6, behea).
ORDUA: 09:30ean

NAFARROAN

EGUNA: maiatzaren 14an
TOKIA: BERRIaren Iruñeko egoitzan (Iratxeko monasterioa, 45, eskuineko eskailera, 13. ezkerre)
ORDUA: 10:00etan

Probara curriculuma ekarri behar da

‘Belarmiñak’ emanaldiaren estreinako jendaurrekoa, bihar, Subegi elkarte

Joxi Ubeda eta Iker Lopez elkartu dira proiektu berrian; emanaldi «lasaia eta leuna» iragarri dute

Iñigo Terradillos Ibarra

Tortura Sistemática edota Tanta musika taldeetako kide izandako Joxi Ubeda eta Lobo Electrico taldeko Iker Lopez gitarra jolea elkartu dira, eta ikuskizun berria prestatu dute. *Belarmiñak* izenburupean bihar aurkeztuko dute Ibarako Subegi elkarte, 20:00etatik aurrera.

Kontzertua baino gehiago, jendaurreko entsegu gisa definitu dute egileek biharko zuzeneko. Udazkenean hasi ziren proiektuari entseguen bidez forma ematen, eta abendutik hona maiztasun handiagoz egin dute lan. Ondorioa hamalau abestiz osaturiko zerrenda izan da, ordubete inguruko saioa: Joxi Ubeda kide izan zen Tanta eta Batzuk taldeen hiru edo lau abestiren bertsoiak, eta gainerakoak proiektu berrira-ko sortu dituztenak.

Joxi Ubeda eta Iker Lopez elkarte ez da kasualitatea izan, aspaldiko lagunak baitira. Ubedak urte mordoia zeramatzan musikatik at, eta berriro ere «zerbait egiteko nahia» sentitzen zuen, eta Lopez ere «zerbait desberdina egiteko gogoz» zegoela azaldu du Ubedak: «Elkartu eta batera zerbait egiteko kontuaz aspaldi hasi ginen hitz egiten, eta azkenean, iaz unea zela erabaki, elkartu, eta jotzen hasi ginen». Jotzen ari zirela nolabaiteko *feeling* bat bazela bien artean ikusi zuten berehala: «Oso ondo komunikatzen dugu elkar, eta ondorioz, oso erraza da batera jotzea».

«Oso gustura» aritu dira, eta ari dira lokalean abestiak entseatzeko, baina bertatik atera eta abestiak jendaurrean jotzeko premia sentitu dute. «Ispilu baten



Joxi Ubeda, eskuinean, Tanta taldeko kideekin, 2003an. BAKI



Iker Lopez, erdian, Lobo Electrico taldeko kideekin, berriki. OLATZARTOLA

modukoak izaten da, jendearen aurrean abestiek funtzionatzeko duten ala ez nabaritzeko aukera izaten duzu, eta hori ikusteko gogoz egunden», azaldu du Joxi Ubedak. Bada, Subegi elkarte zuzeneko egitea proposatu zieten, eta onartu egin zuten. «Leku polita da, txikia, sabai bajukoa, toki egokia horrelako saio bat egiteko».

Bizitzaren egunerokotasunaz

Biharko emanaldira animatzen direnak, Joxi Ubeda ikusiko dute gitarra akustikoarekin eta abesten, eta Iker Lopez, berriz, gitarra elektrikoarekin eta abesten ere bai. Emanaldia «lasai, mantso eta leun jotako abestiek» osatzen dutela diote. «Bakoitza bere aldetik aritu denean, musika gogorragoa edo rockeroagoa egin dugu, eta orain beste zerbait probatu nahi genuen», dio Ubedak.

Emaiztarekin «oso gustura» geratu dira musikariak. Letrak, berriz, bizitzaren egunerokotasunetik atera dituzte. «Gure kezak, sentimenduak eta emozioak azaltzen dira, ikusten dugunaz abesten dugu».

Hori guztia batu dute *Belarmiñak* izenburupean. Sendabelar bati egiten dio erreferentzia izenak, baina ez dute adiera zehatz horregatik hautatu. «Belarrira ondo jotzen zuen, gustatu eta hori aukeratu genuen».

Ibarrakoa estreinako jendaurrekoa da, eta horregatik, proba modukoak ere izango dela uste dute: «Jendearen erantzunaz jabetuko gara eta zer geratu den ondo eta zer gaizki ikusiko dugu, zer kendu eta zer hobetu jakiteko». Beraz, ondoren emanaldia borobilduz eta finduz joango dira. Ibarrakoaren ostean torriko denak ez ditu gehiegi arduratzen, «asmo handirik gabe sorturiko proiektua» baita *Belarmiñak*: «Kontzertu gehiago ateratzen badira ondo, baina erotu gabe, ez baita hori gure helburua», azaldu du Ubedak.

→ Laburrak

Mendi irteera antolatu du Mendibil taldeak igandean

LEITZA ▶ Igande honetarako, hilaren 21erako, mendi irteera antolatu du Leitzako Mendibil mendi taldeak. Egnotik (Araba) abiatuko dira, eta Olan eta Arbarrain gailurrak igoko dituzte. Parte hartu nahi dutenek gaur dute izena emateko azken eguna, Leitzako Astiz edo Maimur liburudendetan edo mendibilaurrera@hotmail.com helbidera idatzita. Bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek 10 euro. Igandean 08:00etan egin dute hitzordua, Oialde parean.

Txosna batzordearen bilera egingo dute gaur

IBARRA ▶ Txosna batzordeak bilera egingo du gaur, Ibarrako kultur etxean, 19:30ean. Talde eta eragile desberdinei bertara agertzeko deialdia egin diete batzordeko kideek. Gazte Fes-tetako eta jaietako txosnen inguruan hitz egingo dute.

Konposta nola egin jakiteko hitzaldia, gaur

LEABURU-TXARAMA ▶ Hondakin eta konpostaren inguruan hitzaldia antolatu du udalak. Gaur izango da, udaletxeko pleno aretoan, 19:00etan, eta Spora ingurumen zerbitzuak emango du.

Ahozko ingeles eta frantses eskolak, doan

IBARRA ▶ Jaione Bengoetxea irakasleak Ibarrako Udalaren lankidetzarekin ahoko ingeles eta frantses eskolak emango ditu dohainik, urritik maiatzera. Parte hartu ahal izateko 1997an edo lehenago jaioa eta Ibarran erroldatuta egotea beharrezkoa izango da. Apirilaren 30era bitarte eman ahalko dute izena Euskara zerbitzuan edo kultur etxean, interesa dutenek.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	14°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



NIKARAGUARA BIDALTZEKO LAGUNTZA

Tolosako Amarotz auzo elkarteak Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatu du aste honetan. Urtean zehar hainbat alditan zabalitzen dute. Bertan saldutako materialarekin ateratzen duten dirua Nikaraguara bidaltzeko izaten da. Amarotz

auzoko lokaletan jarri dute merkatu txikia, eta 16:00etatik 19:00etara izango ditu atek zabalik. Biharkoa izango du azken eguna. Auzo elkarteak kideek herritar guztiei dei egiten diete bertatik pasa daitezen. I.G.L.

Agurrak

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

Mauka berria

GAURKO ESKAINTZA

**Mikel Urdangarinen kontzertua
Cristobal Balentziaga Museoa**

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA
Aldamar Parkea, 6 - Getaria
www.cristobalbalenciagamuseoa.com
info@cristobalbalenciagamuseoa.com
Tel: 943 00 88 40

Prezioa 8€

www.mauka.eu

berria taldea

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Amasa-Villabona.** Fleming Ikastetxeko guraso elkarteak LOMCeren inguruko hitzaldia izango da, 17:30ean, Arroako eskolatan. Hizlaria Imanol Zubizarreta izango da. Hitzaldiak irauten duen bitartean haur txoko zerbitzua egongo da.

■ **Leaburu-Txarama.** Leaburu-Txaramako Udaleko zero zabor taldeak hondakinen inguruan informatze jarraitzeko, eta konposta nola egiten den erakusteko hitzaldia eskainiko du, 19:00etan, udaletxean.

■ **Ibarra.** Txosna Batzordean bilerara izango da, 19:30ean, Ibarra-ko kultur etxean. Herriko talde eta eragile desberdinei bertan agertzeko deia egin diete batzordeko kideek. Bertan, Gazte Festetako eta Jaietako txosnen inguruan hitz egingo da.

■ **Ibarra.** Ahozko ingeles eta frantses eskolak dohain antolatu ditu Ibarra-ko Udalak. Urritik maiztera izango dira, eta Ibarra-ko erroldatuta egotea, eta 1997an edo lehenago jaioa izatea beharrezkoa izango da. Izena emateko aukera hilaren 30a bitartean dago zabalik. Euskara zerbitzuan edo kultur etxean

eman daitezke. Informazio gehiago nahi duenak, 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu dezake.

■ **Leitza.** Mendibil Mendi Taldeak hilaren 21erako mendiri iterea antolatu du Altzania mendilerroa. Izena ohiko lekuetan eman beharko da, eta azken eguna da gaur.

■ **Tolosa.** Atsedena Taldeak, urtero bezala, udako kanpaldia antolatu du uztailearen 26tik abuztuaren 4ra, 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat. Aurten Errioxako Peñaloscintos herrian izango da. Izena emateko edo informazio gehiago lortzeko deitu maiztaren 10a baino lehen 635 74 64 47 edo 649 22 52 00 telefono zenbakietara.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZAREN harpidedun apirilaren 1etik

maiztaren 31ra arte, eta jaso

OPARI

**Basoa banaketak
eskainitako 3 ardo botila**



eta

Harpidedun
guztien artean

**Arete Etxea nekazalturismoan
bi pertsonentzako
asteburu baterako
egonaldia
ZOKATUKO DUGU**

Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info